

FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektuaren antolaketa eta planifikazioa egin ondoren, jarduera batzuk martxan jartzea da lehenengo pausoa. **AUKERAKETA BIZIK** aurrera egiteko jarduera hauek egitea pentsatu dugu:

1. Orientazio saio errealak antolatzea

Ikasleek, unibertsitatetako saio errealetara joateko aukera edukitzeko, hainbat zati bete behar dira, zehazki, unibertsitatekin harremanetan jartzea, egutegiak adostea eta taldeak sortzea.

2. Parte-hartzaileen aukeraketak eta taldeak kudeatzea

Ikasleek nahi dituzten saioetara joateko aukerak egin behar dituzte. Gehien gustukoen dituzten saioak aukeratu ondoren, taldeak sortu beharko ditugu, ikasle bakoitza gai eta saio egokian sartuz.

Adibidez, gazte batek logopedian interesa badu, bere taldearekin unibertsitateko saio errealera joateko informazioa emango diogu.

3. Material fisiko zein digitala sortzea eta sare sozialak kudeatzea

Publizitatea oso garrantzitsua da gure enpresa handiagoa egiteko. Horrek, gazte gehiago erakartzen laguntzen digu, zerbitzua gehiago ezagutaraziz.

Kartelak, aurkezpenak, esku-orriak eta sare sozialetako edukia sortu behar da. Gazteengana iristeko publizitate egoki bat egin behar da, non hainbat estrategia erabiliko diren.

4. Eskolekin hitzarmenak egitea

Proiektua ikastetxeetako gazteengana iristeko, hitzarmenak sortuko ditugu. Alde batetik, ikasletetxeek zerbitzua kontratatzearen ondorioz, diru-sarrerak edukiko ditugu. Bestalde, bezero berriak lortuko ditugu.

Hitzarmenak, geletan izango dira, hau da, gure enpresako hainbat pertsona joango dira hitzaldiak ematera.

5. Parte-hartzaileen ordainketa eta proiektuaren egonkortasuna bermatzea

Gazteek saioetan parte hartzeko ordainketa bat egin beharko dute. Hau da proiektuaren diru-sarrerarik garrantzitsuena eta helburua, zerbitzuaren hobekuntza bermatzeko.